

Tabakoaren lege berria.....3. orria

Hernaniko ia taberna guztietan erre ahal izango da, oraintxe arte bezala

100 metro arteko tabernekin ia orain arte bezala funtzionatu ahal izango dute, baina, haundiagoentzat legea zorrotzagoa da. Lantegietan ezingo da erre bihartik aurrera.

TABAKOAREN lege berria bihartik aurrera jarriko da indarrean bertan adierazten duenez "tabakismoa baita herrialde garatuetan heriotza gehien sortzen duen eta ekidin litekeen kausa". Gauza asko

biltzen ditu legeak, baina, ostalaritzari eta lantokiei dagozkien puntuak dira esamesa gehien sortu dutenak. Hernaniko Kronikari azaldu-takoaren arabera, 100 metro koadro arteko taberna, jatetxe,

sagardotegi eta abarrek ez dute aldaketa haundirik nabaritu legea sartu arren, nagusien esku egongo baita bertan erre litekeen edo ez erabakitzea. 100 metro koadrotik gorako leku erabilgarria dutene-

tan ordea, gauzak oso bestelakoak izango dira, erretzen utzi nahi badute horretarako guneak egokitu beharko baitituzte.

Lantokietarako legea zorrotzagoa da, eta ezingo da erre, aire librean ez badaude. ||

Hutsik egin gabe 'Incansables' txarangak emango dio aurten ere ongi etorria urte berriari

URTE berriari hasiera Incansables txarangak girotuta ematea ohitura bihurtu da dagoeneko Hernaniko kaleetan. Gaur gauean ere ez dute hutsik egingo eta eguraldiak laguntzen badu jende dezente bilduko da, Kale Nagusian gora Kardaberraz behera, Incansables txarangak jotako abestiekin dantzatzen. Ez da San Joanetan adina jende biltzen gaur gaueko txaranga baina girotxoak sortzeko adina bai. Euskal piezak, swinga, salsa, mejikanak, denak ere dantzatzeko modukoak. Gaur goizaldeko 01:30etan aterako dira.

Bestetik Apeadero tabernan Aritz Sound System ariko da musika beltza jartzen gau osoan zehar. Reggae, rap, funk, soul, afro-brasilardar erritmoak... entzuteko aukera izango da. Play aretoan ere Urte Zaharretako festa antolatuta dute musika jarraileekin gau osoan zehar. ||



Incansables txaranga Kaxkoa girotzen ariko da gaur gauean.

URTE ZAHAR EGUNA Erronda gaur

Gaur irtengo da Hernaniko kaleetan Urte Zaharretako erronda, Ohitura Zaharrak abesbatzaren eskutik. Bertso kopla eta trikitixa doinuak izango dira herrian barrena. Irten nahi duen guztiak zita 17:15etan du udaletxeko arkupeetan, baseritar jantzia. ||

SAHARA Konpresak, atuna eta azukrea biltzen

Saharara bidaltzeko oinarriko gauzak biltzen ari dira Hernanin eta gaur goizean Elkano kaleko Eroski City-an, Kale Nagusiko Eroslen, DIAn eta IFAn ariko dira konpresak, atuna oliotan eta azukrea biltzen. Horrez gain, urtarrilaren 22 arte dago aukera janariak Biterin uzteko. Dirua eman nahi duenak sartu Euskadiko Kutxako: 3035 0080 94 0800054177 kontuan. ||

ERREMONTA Bi bitako finalurrekoa gaur

Galarretan jokatuko da gaur Faustino Torneoko finalurrekoa, 16:00etatik aurrera. Zeberio II eta Auzmendik finalerako txartela lortu lezaketekete bigarren partidua irabazi ezker eta Altuna II eta Urrutia enpatearen bila irtengo dira. Jaialdian beste 3 partidu ere izango dira eta horietako batean Ezkurra eta Gazteluk Altuna I eta Eizagirrearen kontra jokatuko dute. ||

Antziola-Motor
Salmenta eta tailer zerbitzua



Ford kontzesionario ofiziala



ORDUTEGIA:
ASTEAN: 9 - 13
16 - 20
LARUNBATEAN: 10 - 13

Antziola auzoa 12 943 55 57 72 HERNANI

Asun Esnal
Bitxigintza

Bitxien konponketak egiten ditugu.

joyeria artesanal

Eguberri on!



Larramendi 3
HERNANI 20120
Tlfa. 943 33 04 78

ANTENAK
Telemar
Itxastele, S.L.



tdt

Telebista Digital Terrestrea

TELEBISTA DIGITAL TERRESTRE BERRIA jada Hernanin da. Eskatu aurrekontua eta montajea!!

Espezialistak Tb Digital Terrestrearen antenak jartzen eta egokitzen.
TB antena parabolikoaren instalazioa, Kolektiboak eta bakarkakoak, Teledistribuzioa, Telefonía mugikorra, Mantenua

Telemar-Itxastele - Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99 - Fax: 943 33 00 60



Hernaniarrak txapelkun alebin mailako txapelketan. Hernanik irabazi zuen asteartean Lehengokoak futbol elkarteak alebinentzat antolatutako futbol txapelketa, Jasonebaso futbol zelaian, Donostian. Bi gra-

duko tenperaturan jokatu behar izan zuten txapelketa Hernaniko gazteek eta finala Carmelo taldeari irabazi zioten 3-1. Argazkia txapelketakoa da eta poza nabari zaie jokalariei gazte eta entrenatzaileei. ||



Xabi Prieto eta Rafafa Portun. Portu eta Elizatxo auzo elkarteek antolatuta Eguberriak ekitaldiak egin dituzte Portuko auzo elkarteak lokaletan, auzoetako gazteenentzat. Ostegunean Xabi Prieto Errealeko jokalararen bisita izan zuten auzoko gazteenek eta berarekin argazkiak atera eta firmak lortzeko aukera



izan zuten. Prieto auzora eramatea Jon Loranen bidez lortu dute eta auzo elkarteek eskerrak eman dizkiote, Hernaniko Klubeko kideari. Bestalde, Rafafa magoa ere izan zen joan den ostegunean Portun eta gazteenek gustora eta aho zabalik ikusi zuten bere magia ikuskizuna. ||



Loreak aldatzen Nere Bordan. Hernaniko 154 ikasle aritu dira loreak aldatzen Nere Borda parkean, beren atxur eta guzti jo eta ke, argazkian ikusi litekeen bezalaxe. San Jose loreak jarri dituzte Nere Borda barruan eta inguruetan eta Manu Iradi herriko lorazaina izan dute gidari aurten ere, herriko gazteek.

Hi! Hernani eta Ingurumena programaren barruan, landaretzaren gaia izaten dute lehen hezkuntzako 5garren mailako ikasleek, eta horren bueltan aldatzen dituzte loreak. Ikasleek adierazi dute oso gustora aritu direla lan-tegi honetan eta urtean zehar joango direla San Jose loreak nola hazten ari diren ikustera. ||

Sagastiyako urbanizazio proiektua

HIRIGINTZA Batzordea izan zen atzo Udaletxean. Batetik hitz egin zuten Sagastiyan egitekoak diren 300 babes ofizialeko etxebizitzetaz. Onartu zuten etxebizitza horiek egiteko urbanizazio proiektua eta exposizio publikoan jartzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Etxebizitzak egiteko terrena urbanizatzen 2006ko aurreneko 6 hilabeteetan hasiko direla azaldu du Iñaki Arratibelek. Etxebizitza berak eraikitzeko proiektua ere onartu beharko da eta 2006an eraikitzen hasiko dira. Hala ere etxebizitzak

egitea Eusko Jaurlaritzaren esku dago.

Zinkoeneako obrak

Beste puntu bat izan zen Zinkoeneako kiosko inguruan egitekoak dituzten obrak. Asmoa da kioskoa aurreraxeago jartzea, autobus parada txukuntzea eta kontainerak lur azpian jartzea. Obra hauek 2006an egingo dituzte eta aurrekontuetan ere sartuta daude.

Batzordean baimena eman zuten Zikuñagako Papeleran depuradora eraikitzeko obretarako. ||

ERRUGBIA

Lagunarteko hiru partidu gaur Landaren

Lagunarteko hiru partidu jokatu dituzte Hernaniko gazteek gaur Landaren. Jubenil eta infantil mailan Iruñako La Unica taldeen kontra jokatu dute eta alebin mailan Hernani A eta Bk neurtuko dituzte indarrak. Gaur, goizeko 11:00etan. Bestalde, ostegunean jokatu zuen nagusi mailan Hernani Bk euskal ligan eta 5-29 galdu zuen Bera Baera B taldearen kontra. ||

❖ MOLTOFF (99.2 FM)

Mariskada zozketatuko dute gaur

Molotoff irratiak mariskada zozketatuko du gaur Plazan, 20:30etan. Txartelak 50 xentimo balio ditu eta 2006ko egitaraua dakar. ||

❖ ODDL EMAILEAK

Datorren asteartean odola emateko eguna

Datorren asteartean izango da 2006ko odola emateko lehenengo eguna eta Odol Emaille Elkarteak dei egin die hernaniarrei behar dutenentzat odola ematera. Anbulatorioan, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara izango da. ||



❖ ITXASPE ARRANDEGIA

Rosi Vicenterentzat Itsaspe arrandegiko marisko eta arrain lotea

Antziola kaleko Itxaspe arrandegiak urtero zozketatzen du Gabonetan marisko eta arrain lotea. Aurten Rosi Vicente izan da zorionekoa. Argazkian ageri da Itxaspeko arrain-saltzaileekin batean. Itxaspek zorionak eman dizkio Rosi Vicenteri eta urte berri onak opa dizkie bezero eta herritar guztiei. (Argazkia: Lauri). ||

Hernaniko ia taberna guztietan erre ahal izango da, oraintxe arte bezala

Arazorik gehien 100 metro karratutik gorako tabernek izango dute, erretzea baimendu ezkeru leku itxi eta aireztatu bat jarri beharra baitaukate horretarako. Lantegietan ezingo da erre, salbuespenen bat gora behera.

TABAKOAREN lege berria ari da hautsak harrotzen baina tabernei dagokienean ez dugu aldaketa haundiegirik nabaritu gehienetan. 100 metrotik behera dituzten tabernetan tabernarien esku dago erretzen utzi edo ez eta gehienetan erretzen utziko dute oraintxe arte bezala. Hasiera batean esan zuten adin txikikoak ezingo zirela sartu erre zitekeen tabernetan, baina, legeak dio gaur arte bezala "heldu batek lagunduta" sartu litekeela. Aldaketak tabakoaren salmentari dagozkio: lege berriaren arabera, makineta bakarrik saldu ahal izango dute tabakoa tabernei (puruak ez beste), makinak egokitu egin beharko dira eta erre ezin den tabernetan ezingo da saldu tabakorik. Hernaniko tabernari batek Kronikari esandakoaren arabera "bihartik aurrera aldaketa bakarra da tabakoa saltzeagatik gehiago ordaindu beharko dugula orain, gainontzean guretzat ez da ezer aldatu".



100 metro baino gutxiagoko tabernei, erretzea baimentzen badute, ez dute leku berezirik jarri beharrik izango eta adin txikikoak orain arte bezala sartu ahal izango dira.

100 metrotik gorakoak arazoak

100 metrotik gorako leku erabilgarria duten tabernei ezingo dute taberna osoan erretzeko baimenik eman eta tabernan erre ahal izatea nahi badute leku berezia jarri beharko dute horretarako, fisikoki berezia eta egoki aireztatua. Gainera, tabernaren %30 baino gutxiago beharko du izan erretzaileentzako gune honek. Gutxi gehiago horrela adierazten du lege berriak eta aldaketarik ezean arazorik haundiena taberna hauek izango dute. Gutxi dira horrenbesteko tabernak eta aukera desberdinak izango dituzte: edo leku bereziak egokitu; edo tabernan erretzen utzi ez; edo 100 metrora

arte txikitu leku erabilgarria. Euskal Herriko Ostalaritza Federazioaren gomendioetako bat da itxarotea legeak zein bide hartzen duen ikusi arte, hilabeteak baitaude erabakiak hartzeko. Egokitzeko hilabeteetako epea uzten dute eta bitartean obrarik egin gabe bereizi ahalko dira erretzaile eta ez erretzaileentzako tokiak, Euskal Herriko Ostalaritza Federazioaren arabera.

Jatetxe, sagardotegi eta abarretan egoera bera

Tabernaz gain, jatetxe eta sagardotegietan egoera berdina izango da legearen arabera. Beraz, 100 metro arteko leku erabilgarria duten tokietan nagusiak erabakiko du erre litekeen edo ez; 100 metro karratutik gorako lekuetan, erretzea utzi nahi izan ezkeru, leku berezi bat egokitu behar-

ko dute, fisikoki apartatua eta egoki aireztatua.

16 urtez azpikoei dagokienez, 100 metro arteko lekuetan sartu ahal izango dira heldu batek lagunduta; 100 metrotik gorako taberna edo jatetxeetan erretzaileentzat egokitutako guneetan ezingo dira sartu.

Salmenta murriztua

Tabakoaren lege berriak erretzeko tokiak ezezik salmentarako guneak ere murrizten ditu. Estankoetan saldu ahal izango da eta baimen berezia duten taberna, jatetxe eta antzekoetan makina bidez (puruak eskura saldu ahal izango dituzte), bertan erretzea baimendua dagoen kasutan. Administrazio zentroetan, osasun zentroetan, kultur etxe, hezkuntzako zentru, kirol gune eta abarretan ezingo da tabakorik saldu. ||

Lantokietan ezingo da erre

LANTOKIETAN erretzea erabat galaraziko du legeak bihartik aurrera. Aire librekoak diren lantokietan bai erre ahal izango da, baina, itxiak diren tokietan galarazia egongo da erabat. Zenbaiten arabera, litekeena da etorkizun batean taberna guztietan erretzea ere debekatzea, lantoki ere badiren aldetik, baina, horiek zurrumurruak bakarrik dira oraindik.

En este establecimiento está permitido fumar

Se advierte que el humo del tabaco en el ambiente, perjudica la salud de las personas no fumadoras

LEY DE MEDIDAS SANITARIAS FRENTE AL TABAQUISMO. D.A. 2ª



Lokal honetan erre daiteke

Ingurune honetan dagoen keak persona ez erretzaileen osasuna kaltetzen duela ohartarazten da

En este establecimiento está prohibido fumar

Excepto en la zonas habilitadas

LEY DE MEDIDAS SANITARIAS FRENTE AL TABAQUISMO. D.A. 3ª



Lokal honetan erretzea debekatua dago

Egokitutako guneetan ezik

Pegatinak sarreran

Hernaniko zenbait tabernetan atzo dagoeneko ikusi genituen erre litekeela zioten pegatina edo kartelak, Ostalari federazioak atereak. Berez Eusko Jaurlaritzari dagokio letrero hauek zehaztea. ||

☎ TELEFONDAK : Taxiak: 943 550093 : Udaltzaingoa: 943 333288 : **DYA**: 943 464622
 1 **Autobusak**: 943 556662 1 **Anbulatorioa**: 943 006666 1 **Jokalari anonimoak**: 943 331103
 + **FARMAZIAK** 1 **GAUR** Egunez: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 1 **Gaez**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 1 **BIHAR** Egunez eta gaez: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Urtearen azkeneko eguna euri-
 tsua izango da. Elurrik ez da
 izango. Haizeak zakar joko du.
 Temperatura maximoak atzokoa-
 ren neurrikoak: 12-13° C.
BIHAR Urte berriak eguraldirik ez du
 aldatuko. Eurria gogotik botako
 du eta giro epela izango da.
 Elurra 700-1000 metrora. Ipar-
 mendebal zakar joko du.
 Temperatura bajuagoak.
 (euskalet)



Lehen Hezkuntzako 30 bat ikasle aritu dira tribial moduko honetan jolasten.

"Erosterakoan produktuen itxurari baino erabilerari erreparatu behar zaio"

Kontsumo arduratsuaren inguruko jokoak egin dituzte ikasleek.

UDALAK aktibitateak antolatu ditu Gabonetan haurrentzat. Ingurugiro Zerbitzuak bideratuta aste honetan kontsumo arduratsua bultzatzeko jolas batean aritu dira Lehen Hezkuntzako 30 bat ikasle. Tribial moduko bat izan da eta bertan gaiarekin lotutako jolas eta

frogak gainditu behar izan dituzte. Ingurugiro teknikariaren esanetan asmoa zen konturatu araztea erosterako garaian arreta gehiago jarri behar dela: plastiko asko duten produktuak baztertu, erabilerari erreparatu itxurari baino gehiago, eta abar. II

† MANUELA ZUBIRI

NARBARTE

ANDREA
 (Tiburcio Etxeberriaren alarguna)
 Atzo hil zen Goizuetan, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren
 - Goian bego -



Bere animaren zuzendaria: D. Esteban Irurzun; seme-alabak: Maria Isabel eta Juan Jose Apezetxea, Mike eta Jesus Mari Apezetxea, Elurtxo eta Mikel Ruiz de Galarreta, bilobak: Eli (+), Josu, Olatz, Julen, Maialen eta Mikeltxo; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela **GAUR, LARUNBATA** arratsaldeko **LAU TERDIETAN**, Goizuetako **AMA BIRJIN JASOKUNDEAREN**

ESKERTZA

Pilar Lete Alberdi

ANDREA
 (Francisco Lizasoainaren alarguna)
 Orain egun gutxi hil zen



Haren seme-alabak, bilobak eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizute egun hauetan modu batera edo bestera gurekin egon izana.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO

Hernanin 2005ko abenduaren 31an

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da **haurrak zaindu** eta **etxeko lanak** egiteko. 12:00-14:30etara.

Deitu: 616 12 60 62

Etxeko lanak egiteko, esperientzia duen **emakumea** behar da. **Interesatu**ek deitu:

609 82 34 72

Salgai tabako makina, freidora, telebista eta eskuak lehertzeko makina. Deitu: 653 727 916

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Etxea salgai Gudarien plazan. Deitu 13:30etatik 15:30etara. 679 10 75 06.

Alokatzeko gela edo **pixu merke** baten bila dabilen neska bat naiz. Deitu: 615 781 465.

Jarraitu opariak egiten, opari hauek dauzkagu zuentzat:

- **KANTABRIA**: Santillana del Mar
 Posada Señorío de altamira: 2 gau, A/D: 65,10 €
 La Casona de Luis: 2 gau, M/P: 61,15 €

- **ARABA**: Villa de Laguardia Hotela, gau 1: 51,00 €
 gela bikoitza + A/D buffeta + bisita "Centro temático del vino"

- **ESKIATZERA**:

* **Astun**, urtarrilaren 6tik 8ra: 150,00 €
 Autobusa + hotela 2 gau M/P + forfait + 3 bazkari + seguroa
 * **Candanchu**, egun bateko irteera: 39,00 €
 Asteleheneetik ostiralera irteerak. autobusa + forfaita + segur.

- **ARNEDILOko Balnearioa**: 282,00 €
 "Relajatzeko asteburua", 2 gau, M/P + 3 teknika

- **IBERCHEQUE** taloia: 50,00 €

eta kontsultarako beste aukera asko...

Egunak konfirmatu behar dira. Prezioak pertsonako dira.

**HERNANI
 BIDAIAK**

hernanib@teletel.es
 Urbietako, 6 - 20120 HERNANI


943 33 00 49 / 943 33 01 74

LEOKA TABERNA

Kardaberaz 3, HERNANI



Eguberri jai
 zoriontsuak
 opa dizkizuegu!



2006ko Egutegia

Prezioa: 3,00 €



Salgai ohiko tokietan

ILBELTZA



Kronika, Dobera, Sebas,
 Iruretagoiena,
 Leokadisti, Plaza Berri,
 Zinko-enea, Konde,
 Darronsoro, Bikain, eta
 Antziola okindegian.